

HERIOAK ERE MAITA DEZAKE

Unai Baztarrika

Beasain, 17 urte

“Wiston”, “Lucky Strike”, “Ducados”, “Chesterfield”, “L&M”... Tabako kaxen marken zerrenda amaigabea bihurtzen da, argi eta marrazki dotorez betetako tabako makina zahar honetan. Distira guzti horiek lausengu hutsa dira bere bizitza ke artean ito nahi duenarentzat. Taberna honek mundu guztiaren zorigaiztoen zarba erretokia dirudi, metafora baten irudi zehatz eta krudela. Edaritegi zaharkitu hau jendez lepo dago, bata besteari oihu eta bultzaka dabilen jendez gainezka. Baina horrenbesteko jendetza nire inguruan ibiltzeak oraindik bakartiago sentiarazten nau, azken batean tabako makina xume honen kaiak babesten nau, soilik, munduaren zurikeria eta azalakeriazko olatu itzelen itsaso haserre honetatik. Makinaren argi bizek ez naute bakarrik uzten, baina bakardadea ukalezina da: zu falta baitzara. Zure esperoan nago. Zure zain naiz; non zaude?

Tabako makina baten hurrean nintzen, hain zuzen, taberna zulo hartako laino artetik izar distiratsu baten antzera agertu zinenean. Ez nizun begirik kendu (ez da kendu nahi ere), zure mugimendu guztiak nire begi ninietan isladatzen ziren, nire pentsamenduen gozagarri izan aurretik. Hain zinen ederra, zure adats horiek aurpegiaren erdi bat estali arren, hau nahikoa zen zure edertasuna-

ren testigu argia bihurtzeko. Zure irribarrea edertuz zihoan momentuoro, zure lerdentasunak nire irudimena gainditzen zuen. Ez dakit zehazki zenbat denbora egon nintzen zuri so, baina ohartzera-ko nire lagunak ihes eginak ziren; hala ere, ez nintzen bakarrik sentitu. Dimentsio honetatik at nengoen, zure irudiak erabat liluratu ninduen, zorabiatzeraino. Zure begiek zulatu egiten zuten nire bihotza baina izpi zuzen horiek ez zidaten minik egiten, arnasa estutu baizik. Bat-batean gure begiradak elkartu egin ziren, segundu batzuk igaro eta oraindik biotako inork ez zuen begirik itxi, ez irribarrerik egin, ez arnasarik hartu... Aurkitzen ginen moduan harri bilakatu ginen baina estaltzen zintuen harriak eztanda egin eta zure irribarrea agertu zen harri pusken artetik, eguzkiak galgan behe-lainoa zeharkatzen duen modu berean. Zure ezpainen marrazten zuten marrazkia (margo lana hobeto esanda) hiruki isoszele bat bezain zehatza zen, baina horrek ez zion abstraktotasunik kentzen; Picasso-ren margolan bat bezain esanguratsua zen, edertasunaren kanon bihurtuko zintuzket. Zure ezpainen artetik antzematen ziren hortz txiki nahiz lerdeneak argiztatu egiten zuten taberna zulo ilun hura, irribarre hark eguzkiaren adierazpenaren mozorroa hartu zuen ilargia eta gauaren iluntasun betierekoaren aurrean. Ez dakit zenbat iraun zuen egoera hark, hala eta guztiz ere nahikoa eta soberan izan ziren nire bihotz gajoa taupada bizian jarri eta eztarriko tsua erabat desagertzeko. Zure begiradak, zure irribarreak, zure gorpu-

tzak, zuk, gau ilun eta heze hartan nire bizitzaren joan-etorria erabat aldatu zuten, baserritarrak lurra iraultzen duen moduan. Baina hala ere, hura bukatu egin zen; ezin izan nion begirada hari gehiago eutsi eta burua altxatu nuenerako joana zinen; haizeak eraman zintuen, nire amets berriarekin batera.

Nire buruan galderek eta erantzunek beraien artean borrokatzen zuten, alde batetik, sinistu nahi nuen zuk ere nire antzerako zerbait sentitu zenuela, niregan amets berri baten haziak landatu zenuela, nire begiradak ere bihotza erdibitu zizula... Baina beste aldetik, ezinezko zen gu bion artean momentu hartan zerbait gertatu izatea; kasualitate hutsa izan zela pentsatu behar nuen, bestela... Nahiz eta zure imajina etengabean gogoratu, bizitzak aurrera jarraitu zuen biontzako... Egia esan, zu hainbat desiatzeak merezi izan zuen. Gau eta egun pasatu nituen esnaturik amesten, bizitza zein ederra bilaka zitekeen pentsatuz; ilargiak hain urruti egonda ere itsasoa mugi bazezakeen, nik ere nire xehean bizitzaren ozeano sakona nire gogora alda nezakeela sinetsi nuen, handia eta boteretsua sentitu nintzen.

Gauean kalera edo parrandara joanez gero, taberna guztiak arakatzen nituen, dagoeneko nire izena baino argiago gogoratzen nituen zure ile horien bila, zure aurpegiaren su ziren begi berdexken zelatan, zure irribarre adeitsu eta maitagarriaren usman. Baina ez zinen inondik ageri, edaritegi eta "txozna" guztiak hankaz gora jarrita ere.

Jadanik amets bat zinela uste nuen; inoiz, inola beteko ez zen amets polit bat. Zergatik? Zergatik ez zinen nire begietara azaltzen? Galdera honi erantzun nahiean nintzen, kalean buru makur, noraezean nenbilela norbaitekin tupust egin eta burua altxatzean nire aurrean aurkitu zintudanean.

– Barkaidazu, zein baldarra naizen. Minik hartu al duzu? –galdetu zenidan ahots eztiz. Aurreko asteetako gogoetek zaildu egiten zuten nire jokiera baina...

– Ez, lasai, nire errua izan da –lortu nuen esatea, baina ez izerdi gutxi atera gabe. Urduritasunez urtutzen ari nintzela sentitzen nuen, izerdi hotzak nire sorbalda zeharkatzen zuen.

– Baina zu, orain aste batzuk niri begira egon zinen mutila zara, ez? –hau esateak ia lurtean botata utzi ninduen baina zure irribarreak ni erortzea eragotzi zuen.

– Barkatu, zure irribarrea ederregia zen etengabe so ez egiteko –berekala damutu nintzen esandakoaz baina zure irribarre kilikagarriak itxaropenak itzularazi zizkidan.

Ondoren, nirekin hitz egin nahi zenuela esan eta parkearen zoko batean eseri ginen. Nire gogorimek ez zuten erreakzionatzen baina gure elkarriketa luzatzen zen heinean lasaituz joan nintzen. Ez dut sekula ahantziko “gau-pasa” berezi hura, nahiz eta hitz hutsetara mugatu gure artekoa. Elkar ezagutu genuen nahiz eta gauza asko gure golkorako gorde genituen, distantziak gorde nahian edo. Nik, zurekin izandako begirada truka-

keta gogoangarri hartaz hitz egin nizun. Agian, ez nizkizun xehetasun guztiak aipatuko baina esan nizun nola liluratu ninduen zure aurpegiak, ez nuen ahaztu zure begiradak sortu zidan bihotzerre atsegin hura baina ez nizun aipatu zure irribarre miragarri hark guztiz maitemindu ninduela (ez zen momentu egokiena). Zuk, bai, Z.A-k aurreko aste luze haietan loa eragotzi (ez dezadan nire burua engaina, ez nuen lo hartzerik nahi, zutaz amets egingo ez nuen beldur nintzen) buruhaus-teek osatzen zuten lainoa nolabait deuseztu zenuen, gauzak argiago ikusten nituen. Zure aburuz, begirada hura kasualitate hutsa izan arren, ez zenidan ukatu zerbait berezia sentitu zenuela (inork sekula horrela begiratu ez zizula ere erran zenidan) eta horregatik, ni guztiz ezagutzea zen zure desio bakarra. Baina denbora emateko eskatu zenidan; nekez ulertu nuen, hala ere, ez nuen beste erremediorik.

Handik aurrera gauzak ez ziren berdin, hain ziren ezberdin. Elkar ikustekotan gelditu ginen baina egunak luzeak ziren, bukaezinak ziren zeren guztiz zoratuko nintzela uste bainuen. Sasoi hartan inork ez ninduen aintzakotzat hartzen, bakarti sentitzen nuen nire burua, inoiz amarik ezagutuko ez duen umezurtza bezala, bakardadean. Itsaso hase-rean noraezean zebilen baporea zirudien nire bizitzak, nora iritsi nahi nuen jakin gabe, olatu handiak ziren nire sostengu bakarra. Adiskideak uste nituenek ere bizkarra eman zidaten, beraien errua izan ez arren, nire amildegira bideratu nin-

duten baina ez nindoan bakarrik. Aitzitik, zu, behinola hain aparta irudikatu zintudana, nire bidean gurutzatu zinen (elkartu ote ginen).

Urte Zahar egun bat zen, beno, jadanik urte berrian murgildurik geunden (batzuk aurrekoan jarraitu arren). Ni, lagunekin ospakizun ospaezin hura ospatzen ari nintzen, bestaren aipamena izango balu, sikiera. Taberna zulo guztiak jendez gainezka zeuden, hala ere guk, bi gutxi izanda hamabost bat bisitatu genituen. Azaleko momentuak ziren haiek guztiak, hipokresiaren jaiaz bustirik; guztiok opa genion ondokoari urteberri ona baina guztiok bagenekien ere aurrekoa bezain gogorra edo gogorragoa izango zela, munduak ustelduta jarraituko zuen. Faltsukeriaren unibertsoetik atera nahiean nenbilela, han ikusi zintudan, kale zoko umel batean jesarrita, burumakur. Ez nengoen oker, hura noizbait desagertuko zela bezain erreala zinen. Kirioak dantzan nituela hurbildu nintzain, egian esan ihes egingo zenidala iruditu zitzaizdan. Ez zen halakorik gertatu, nire aurpegia begizatzean, lasterka gerturatu eta nire besoetara erori zinen, besarkada betean, begiak malkotan zenituen, nik etengabe galdetzen nizun zer jazo zitzaizun baina isilik egoteko eskatzen zenidan; nire isiltasuna entzun nahi omen zenuen. Orduan ferekatu nituen aurrenekoz zure adats horiak, orduan sentitu nuen lehenengoz zure gorputzaren berotasuna niregan, orduan ikutu zintudan aurrenekoz. Besarkada hartan urtu nahi zenuela zirudien, niregan sartu nahi zenuen besarkada hura mugaraino

eramanez... Baina ez zen halakorik gertatu; bat-batean begietara zuzen begiratu eta inoiz entzun ditudan hitz eztienekin maite ninduzula aitortu zenidan, begirada hura betikortuz. Aitorpen hark ia arnasarik gabe utzi ninduen, hainbat desiatu izan nuena egia bihurtu ondoren, negar egitea besterik ez zitzaidan bururatu (patetiko samarra); negar malkoetan bustirik deklaratu nintzaizun. Zuk ere bakardadea nozitzen zenuen, sufritzen ari zinen. Bi ardi galdu ginen gizarte materialista hartan, batak bestea behar genuen: gure artean maitasuna jaio zen.

Tabako makinaren argiak itzaltzen ari dira, barnean duten indarra bat-batean joango balitzaie bezala. Agian, tabako kaxak hustean, hauek eraman dituzten jendeaz kezkatu egingo dira, beharbada, erostera bultzatzen duten argiek. Baliteke agian, munduan irrazionaltasunaren gatibu izatea, gure islada; baina taberna zulo honetan dagoen jende andana bata bestearen ispilua da, razionaltasunaren gatibu.

Razionaltasunetik kanpo gelditu zena gure maitasuna izan zen, bestalde, hori geurearen amaiera izango litzateke. Une gogoangarriak igaro genituen elkarrekin eta agian, ederrena sekula jasan dudan gaurik hotzenez gertatu zen. Hala ere, ez nintzateke gai izango gau hura merezi duen bezala deskribatzeko. Ederra eta polita urruti geratuko lirateke, edertasun hutsetik haruntzago zihoan, neuk ere baneki benetan zer sentitu nuen. Gau hozgiro hartan zure bizitzaren zoko izkutuenak

ezagutu nituen; ez nuen sinetsiko zu bezalako neska batek bizitzan hainbesteko oinazeak jasan behar izango zituenik, eta dena inork ez zuelako mundu ageritik at zebilen neska bat ulertzeko adorea izan, negargarria. Ondoren, zerbait gehiago jazo zen, ordea. Halako batean isildu egin zinen eta begirada triste batekin erasotu ninduzun, ez dit sekula eraso batek horrelako atsegini sortu. Nik, zure eskua ferekatu ondoren nirearekin estutu nuen, zuk irribarre egin (a zer nolako irribarrea) eta eskua askatu ondoren nire aurpegia laztandu zenuen. Laztan haiek erabat txunditu eta hotzikarak hartu ninduen, elektraindarrak ura hartzen duen moduan. Nire aldetik, aurpegi xarmangarri hori estaltzen zizuten adats horiak baztertu eta zure ezpainak ferekatu nituen; gordinkeria hutsa dela pentsatu arren, zure ezpainei zerien tsu fin horrek nire behatzak ezabatu egin zituen. Itsumustuan zure ezpainak nireengana hurbiltzen hauteman nituen. Gure ezpainak elkartu arteko uneak betierekoak iruditu zitzaizkidan, segunduak eternal bihurtzen ziren, minutuek ez zuten sortzeko aukerarik. Zure begi berdexkek nireekin topo egitean, gure islada beha genezakeen, gure burua behatu bizitzan izango genuen une miragarriengan, luzaro hauts artean gordeko den zuri-beltzeko argazki bat bailitzan. Bazirudien gure ahoak elkar-terakoan, nire gorputzak su hartu zuela, betiko plazerrean erreko nintzela. Gure ezpainak elkartu zirenean gehiago maite zintudan, zure ileek, musukatzen ginen bitartean, nire bekokia ferekatzen

zuten eran gehiago desiatu zintudan. Are gehiago gure mingainak beraien artean jolasteari ekin ziotenean, nire zangoek gurinez eginak zeudela bezala jokatzeko zuten, berotasun liluragarri hark nire hankak urtuko zituela beldur nintzen. Musu hark bere amaiera izan, izan zuen, baina honek hasiera indartsuagoa ekarri zuen, maitasunaren adierazpen zabalagoaren adierazgarri. Gure ahoak banandu zirenean, zure begiradak erakutsi zidan sentimendu haragitu hark, zirrara berezi bat eragin zidan. Biok begiradari eutsi genion, ez genuen hitz beharrik gure sentimenduen adierazteko, nahikoak ziren gure begiei zerizkien hitz esanguratsuak; nahikoak ziren gure begi, aho, irribarren aieruak. Hala eta guztiz ere, momentu hartan ahoa iriki eta esaldi motz batez bihotza eztenkatu zenidan; gure arteko maitasuna desagertuta ere, zure buruaz ahazteraino maitatuko ninduzula agindu zenidan, nik, ordea, ezin nuen halakorik agindu (ez nuen nire burua behar bezala ezagutuko, agian).

Elkarrekin une zoragarriak igaro genituen arren, momentu garratzak ere gainditu behar izan genituen. Udaberriko egun euritsu bat zen, baina ez dut horregatik gogoratzen, soilik. Oroitzen dut egun hura, herriko plazan geldituak ginen, euria goian behean ari zuen eta plazako arkupeetan aurkitu behar izan nuen estalpea. Gelditu ordua baino lehenago iritsi nintzen eta denbora egiteko, arkupeetan pilotan zebiltzan ume guztiekin partida bati ekin nion. Jarri orduan ez zinen agertu, partida luzatu egin zen; egia esan, ume kakanarro haiek

errez menderatzen ninduten. Ordu laurdena igarota kezkatzen hasi nintzen baina azken orduko atzerapen bati atxeki nion guztia, haurrek ere bakarrik utzia ninduten jada, bakardadearen aurrean. Ordua ondo pasata, eta gerta izan zekizukeenaz nahiko interpretazio etsia egin ondoren, ulertu nuen ez zinela agertuko, ez behintzat ilunabar hartan. Sentimendu kontrajarriak nituen, alde batetik, zutaz kezkatu nengoen baina bestetik, haserre nengoen, ez zinen agertu. Etxera iritsi orduko, ama agurtzeko betarik hartu gabe deitu nizun baina etengabe telefonoaren beste aldean entzuten nituen burrundara haiek nire ezinegona areagotu besterik ez zuten egiten. Jada amore eman eta telefonoa eskegitzean, honek txirrin lazgarriak atera zituen, norbait ari zen deika. Berehala ezagutu zintudan baina segundu erdi hartan haserreaz kezka irabazi eta erabil nitzakeen hitz mingotsenak erabiliz esan nizun ez zitzaidala batere gustatu zu ez agertu izana, orain damudut. Are gehiago damutu nintzen, zure erantzuna benetan barneratu nuenean: “Nahikoa ez gehien ulertzen ninduen pertsonetariko bat mundu honetatik joatea (gerora jakin nuen, amona hil zitzaizula) eta orain zuk, kale egiten didazu. Agian, maitasunak begiak itxi dizkit, ez dakit”.

Telefonoa eskegi zenuenerako, itsasoratzeko egin eta kaian geldirik dagoen itsasuntzia bezala, sendatu beharrean gaixoen heriotzak egiaztatu besterik egiten ez duen mediku bat bezala, sentitu nintzen. Gau hura luzea izan zen, ez nuen begirik

itxi (agian, ez nuen eskubiderik lo egiteko). Minutuak eternal bihurtzen ziren. Ulertzen ninduen pertsona bakarrari min egin nion, gupidarik gabe kale egin nion; zure mina areagotu egin nuen. Agian, garrantzitsuegia zinen zurekin arinkiro jokatzeko; beharbada, gehiegi maite zintudan zuri min egitera ausartzeko, horregatik nintzen guztiz damu. Zure hitzak osatzen zituzten hizkiak erraldoi bihurtzen ziren, eta nire ohe gainera jausten, nire bihotza zanpatuz. Bihotza odolustu eta hormetan itsatsitako odolak hitz bakarra marrazten zuten: Zergatik? Hala ere, banekien guztiaren erantzulea nintzela; barkamena eskatzea erabaki nuen. Ez nago ziur baina goizeko zortziak aldera ohetik jaiki eta zure etxera abiatu nintzen. Aurreko eguneko eurijasaren ondorioak oraindik agerian zeuden, haizeak gogor astintzen zituen bezperan sortutako putzuak, uhin txiki nahiz bizkorrak sortuz hauetan. Zure harreraz beldur nintzen baina nire etorrera etsia zen. Etxepera iristean, mila galderek harrapatu ninduten baina erantzunik gabe eskaileretan gora arrapaladan abiatu eta zure ateko txirrina jo nuen. Pauso hotsak aditzen ziren, egurrezko zoruak zarata karraskari batez erantzun zieten urrats motel haiei. Atea astiro-astiro zabalitzen hasi zen, minutuak pasatu zirela iruditu zitzaizdan, atea erabat ireki zen arte. Orduan, nire aurrean begiztatu zintudan, zure itxuraz lotsatzen zinen baina inoiz baino ederrago hauteman zintudan. Ile banatu hark misterioz jantzen zuen zure aurpegia eta jantzita zeneraman ohe jantzi hark zure gor-

putzaren liraintasuna agerian uzten zuen. Jantzi hark bulargaina begi bistan uzten zizun, zure azal leunak tentazio izkutuak sortarazten zizkidan. Oihal txuriak bularrak estaltzen zituen, baina erraz antzeman zitezkeen titiburu goxo haiek; oihala, zure bularren gailentasunaz gozatu ondoren, zure bernetaraino erortzen zen. Orduan behatu nituen aurrenekoz, zure zango lerden haiek, perfekzioaren islada ziren. Zein ederra zinen, une haietan. Etxean bakarrik zeunden eta etxera sartzera gonbidatu ninduzun, nik, gonbitea onartu nuen. Zure gelaraino gidatu ninduzun, han, ohearen gainean eseri ginen eta negar zotinka hastear nengoela barkamena eskatu nizun, nire bihotzak hitz egin zuen nire ordez (baina nik ez nion erakutsi nire bihotzari mintzatzen). Zuk, burua makurtuta lurrera begiratzen jarraitzen zenuen, pentsatzen, hausnartzen...

Ez dakit zergatik baina handik aurrerakoak lausotuta etortzen zaizkit gogora, mendeak igaro izan balira bezala. Irudi nahastuak ikusten ditut, oihu bat eta kolore gorria, gorria bai. Taberna zulo honek ez du laguntzen lan horretan, baina, baliteke nire alboko gizonak egitea (badakit, badakidanez...). Nire alboan gizon bizardun bat, tabako makinan txartel txikitxo bat itsasten ari da, honela dio: Zihara Agirre desagertua, zerbait jakin dezakeenak...

Bai, orain garbi oroitzen naiz zer jazo zen, ez zaude desagertua; nik, badakit non zauden. Gogoratzen dut, nola gure artekoak ezin zuela

jarraitu esan zenidala; nik, ez zintudan zu besterik munduan. Ez nuen nahi baina senak agindu zidan, barkaidazu. Ezin izan nion maiteminari eutsi, esan nizun nire bihotzak ez zuela hitz egiten ikasi, ez zuen gorroto eta maitasun adierazpen arteko ezberdintasunik ezagutzen. Zure logelako mahaitik goraizeak hartu ondoren oihu bat entzun nuen, bihotza zeharkatu nizun; bihotz hori niri ez baze-gokidan, ez zegokion inori, zure maitasunak nirea izan behar zuen. Bihotza poltsikoan gorde ondoren (oraindik ere nire patrikan somatzen dut zure maitasuna, hor dut bihotza), zure gorpu ezin ederra sukaldera eraman eta zatitu egin nuen. Zure gorpuaren zati txikiak ganbarako izozgailuan sartu nituen, zure burua izan ezik. Zure burua basora eraman eta bertan azkeneko musua eman ondoren, zure zuhaitz gogokoenaren ipurdian lurperatu nuen, nire maitasunaren seinale (han eternal bihur zintezan). Betiko maite ninduzula esan zenidan, orain badakit beteko duzula. Bizirik bazina eskerrak emango zenizkidake, herioak ere maita dezakeela erakutsi dizut. Maite zaitut.

“Maitasunez infernutik...”